

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

LAUKIZ

Plan estrategikoa: 2004-2006

Helburu nagusia **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.**

Helburu estrategikoa 1 - Euskara ondorengoetaratzea**Esparrua 1. a - Irakaskuntza**

Neurria 1. a. 01 - Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAeko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.

Ekintza

1. a. 01/1 - Irakaskuntza sisteman sartzear dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza zehatzak gauzatu (gutunak, hitzaldiak...) irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azalduz.

1. a. 01/001 - Ikastolen aldeko jaietarako dirulaguntza bideratu

Neurria 1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintza

1. a. 03/9 - "Euskara Zine Aretoetara" programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)

Esparrua 1. b - Euskalduntze-alfabetatzea

Neurria 1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehenetsun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintza

1. b. 01/3 - Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaini

1. b. 01/4 - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea

1. b. 01/1 - Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu

Esparrua**1. c - Familia**

Neurria

1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (hautzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintza
1. c. 01/1 - Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini
1. c. 01/6 - Euskara ikasten ari direnentzako gurasoei dirulaguntzak eskaini eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1. c. 01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1. c. 01/9 - Euskara Batzordearen bitartez, hiru-lau urterako programa taxutu
1. c. 01/12 - Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...)

Helburu estrategikoa 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

Esparrua

2. a - Administrazioa

Neurria

2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioako erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

Ekintza
2. a. 01/2 - Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/3 - Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini
2. a. 01/5 - Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu
2. a. 01/8 - Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/9 - Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/10 - Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/11 - Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/12 - Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu
2. a. 01/13 - Udalak egiten dituen obra kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/14 - Udalak egiten dituen aholkularitza eta asistentzia kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2. a. 01/1 - Agintariak ere programa hauetan inplikatu
2. a. 01/4 - Euskaldun ororengana iristeko Komunikazio Plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.
2. a. 01/7 - Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzak definitu eta kaleratu eta jarraipenerako sistema bat antolatu

Neurria

2. a. 04 - Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.

Ekintza
2. a. 04/001 - Alkaside bilgunean parte hartu
2. a. 04/2 - Euskara Zerbitzuaren betebeharren arabera normalizatzailearen beharrak definitu, HPSrekin batera
2. a. 04/4 - Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, talde eta elkarteekin batera
2. a. 04/5 - Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean

Esparrua

2. c - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Neurria 2. c. 06 - Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintza
2. c. 06/3 - Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean
2. c. 06/1 - `Paperik gabeko? informatizaziorako udalen ahaleginetan, zerbitzuak euskaraz eskuragarri jarri
2. c. 06/2 - Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini

Neurria 2. c. 07 - Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.

Ekintza
2. c. 07/1 - Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaltu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa,...

Esparrua 2. d - Enpresa-mundua

Neurria 2. d. 01 - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintza
2. d. 01/5 - Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu
2. d. 01/9 - Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri

Esparrua 2. e - Aisia

Neurria 2. e. 01 - Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex,...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trekuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro

Ekintza
2. e. 01/1 - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu

Neurria 2. e. 03 - Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintza
2. e. 03/1 - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
2. e. 03/2 - Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu
2. e. 03/3 - Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu
2. e. 03/6 - Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu
2. e. 03/4 - Irteerak euskaraz antolatu
2. e. 03/5 - Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu

Esparrua 2. f - Kirola

Neurria 2. f. 01 - Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

Ekintza
2. f. 01/1 - Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu

Neurria 2. f. 02 - Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen `Denontzako Kirola? programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintza
2. f. 02/1 - Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri

Esparrua 2. g - Erljioa

Neurria 2. g. 03 - Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzea eskatu elizbarrutiei.

Ekintza
2. g. 03/1 - Katekesia euskaraz ere eskaini
2. g. 03/2 - Katekesi ekintzetan erabiltzen den euskarazko materiala zabaltzen laguntzea

Helburu estrategikoa 3 - Euskararen elikadura**Esparrua 3. a - Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea**

Neurria 3. a. 03 - Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintza
3. a. 03/1 - Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorriz
3. a. 03/4 - Herriko denda, taberna eta jatetxeetako hizkuntza-paisaian euskararen presentzia txukundu eta areagotu

Esparrua 3. c - Liburugintza

Neurria 3. c. 01 - Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.

Ekintza
3. c. 01/1 - Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan
3. c. 01/2 - Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu

Neurria 3. c. 04 - Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarten artean.

Ekintza
3. c. 04/1 - Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu

Esparrua 3. g - Kulturgintza

Neurria 3. g. 01 - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintza
3. g. 01/2 - Ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu

Neurria 3. g. 04 - Kulturgintza: Administrazio guztien arteko loturak sendotu.

Ekintza
3. g. 04/1 - Inguruko herriekin eskualdeko kultur zirkuituak antolatu

Neurria 3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintza
3. g. 05/2 - Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira
3. g. 05/5 - Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu
3. g. 05/7 - Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea

Esparrua 3. h - Hedabideak

Neurria 3. b. 03 - Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

Ekintza
3. b. 03/1 - Eskualdean diharduten komunikabideen arteko elkarlana eta truke-lerroak eratzea sustatu
3. b. 03/2 - Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea